

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua:	1920/2006	(EE)	ERREGELAMENDUA,	EUROPAKO	PARLAMENTUARENA	ETA
	KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 12koa, Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokiari buruzkoa (Testu bategina).					

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta zerbitzu horren ziurtagiarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Reglamento (CE) N° 1920/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de diciembre de 2006, sobre el Observatorio Europeo de las Drogas y las Toxicomanías (Refundición)*» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 376 de 27/12/2006)

I

(Aplikatu ahal izateko, argitaratu egin behar diren egintzak)

**1920/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,
2006ko abenduaren 12koa,
Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokiari buruzkoa (Testu bategina)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatu eta, bereziki,
haren 152. artikulua aztertuta,

Batzordearen proposamena aztertuta,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena
aztertuta ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komiteari aurretiaz kontsulta eginda,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari
jarraituta ⁽²⁾,

Honakoak kontuan hartuta:

- (1) Kontseilu Europarrak Luxenburgon 1991ko ekainaren 28an eta 29an egindako batzarrean, drogen Europako behatoki bat sortzen hasteko erabakia onartu zuen. Erakunde hori, Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokia ("Behatokia") izenekoa, Kontseiluaren 1993ko otsailaren 8ko 302/93 (EEE) Erregelamenduaren bitartez eratu zen ⁽³⁾ eta, ordudantik, aldaketa ugari eta sakonekoak egin zaizkio arau horri⁽⁴⁾. Hori ikusita, eta argitasunaren mesedetan, Erregelamenduaren testu bategina idatzi da.
- (2) Europan, drogari, toxikomania eta horien ondorioei buruzko informazioa behar da, informazio erreal, objektiboa, fidagarria eta konparagarria. Horrela, ikuspuntu bateratu bat izateko aukera izango baitute Europako

Erkidegoak eta Europako Erkidegoko estatu kideek, eta, era berean, haiei dagozkien eskumenen esparruan, drogen aurkako neurriak hartzeko tresnak izango dituzte.

- (3) Drogen errealitateak alderdi ugari eta konplexuak ditu, elkarri lotuak eta bereizten zailak. Hori dela eta, Behatokiak informazio orokorra emateko ardura hartu du, drogari eta toxikomania buruzko ikuspuntu bateratu bat ematen laguntzeko Erkidegoari eta Erkidegoko estatu kideei. Informazioa emateko eginkizuna izan arren, Behatokiak ezingo du aurreiritzirik eman Erkidegoaren eta estatu kideen artean dagoen eskumen-banaketaren inguruan, eta, zehazki, drogen eskaintzari eta eskaerari buruzko lege-xedapenen inguruan.
- (4) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2002ko abenduaren 16an emandako 2367/2002/EE Erabakiaren bitartez ⁽⁵⁾, 2003-2007 Erkidegoko Programa Estatistikoa onartu zuten 2003-2007 aldirako. Programa horretan, osasun- eta segurtasun-arloko estatistikei buruz Erkidegoak egindako ekintzak azaltzen dira.
- (5) Kontseiluaren 2005/387/JAI Erabakiak, 2005eko maiatzaren 10ekoak, informazioa trukatzeari, arriskua ebaluatzeari eta substantzia psikotropiko berriak kontrolatzeari buruzkoak ⁽⁶⁾, Behatokiaren eta haren zientzia-komitearen betebeharrak finkatzen ditu, alerta azkarreko sistemaren ezarpenaren eta substantzia berriek dituzten arriskuen ebaluazioaren alorrean.
- (6) Beharrezkoa da kontsumo-modu berriak zaintzea, batez ere, polikontsumoa. Legezko drogen, legez kanpoko drogen eta

¹ EO C 69, 2006.3.21ekoa, 22. or.

² Europako Parlamentuaren irizpena, 2006ko ekainaren 14koa (oraindik Egunkari ofizialean argitaratu gabea).

³ EO L 36, 1993.2.12koa, 1. or. Erregelamendu hau aldatu egin da. Azken aldaketa 1651/2003 (EE) Erregelamenduak egindakoa da (EO L 245, 2003.9.29koa, 30. or.).

⁴ Ikusi II. eranskina.

⁵ EO L 358, 2002.12.31koa, 1. or. Erabaki horri aldaketak egin dizkio 787/2004/EE Erabakiak (EO L 138, 2004.4.30ekoa, 12. or.).

⁶ EO L 127, 2005.5.20, 32. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- medikamenduen kontsumoari esaten zaio polikontsumoa, hau da, hiruak nahasten dituen kontsumoari.
- (7) Estatu kideek darabiltzaten jardunbide onenei eta irizpideei buruzko informazioa eskaintzea eta jardunbide horien trukaketa erraztea da Behatokiaren egitekoetako bat.
- (8) Kontseiluak 2001eko abenduaren 10ean emandako Ebazpenak, drogen arloan oinarritzko bost adierazle epidemiologikoak aplikatzeari buruzkoak, estatu kideak behartu egiten ditu oinarritzko adierazle epidemiologiko horiei buruzko informazio konparagarria ematera. Behatokiak erregelamendu honetan zehazten den bezala lan egin dezan, ezinbestekoa izango da estatu kideek bost adierazle horiek aplikatzea.
- (9) Komeni da Batzordeak aukera izatea Behatokiari zuzenean agintzeko egiturazko laguntzarako erkidego-proiektuak egin ditzan, drogak hirugarren herrialdeetan duen egoeraren berri izateko informazio-sistemen inguruan. Hirugarren herrialde horiek izan daitezke, batetik, Europar Batasuneko kide izateko hautagai diren herrialdeak, eta, bestetik, mendebaldeko Balkanetako herrialdeak, baldin eta Kontseilu Europarrak onartu egin badu herrialde horien parte hartzea Erkidegoko programetan eta erakundeetan.
- (10) Behatokiaren antolaketak eta lan egiteko moduek egokiak izan behar dute lortu nahi dituen emaitza zehatz objektiboak lortzeko; hau da, drogari buruzko informazio-metodoak eta -iturriak konparagarriak eta bateragarriak izatea.
- (11) Behatokiak jasotzen duen informazioak lehenetsuneko arloei buruzkoa izan behar du. Informazio horren edukia, irismena eta instrumentazioa zehaztu behar dira.
- (12) Jadanik badaude informazio-mota hori ematen duten nazioko, Europako eta nazioarteko organizazio eta erakundeak. Hori dela eta, funtsezkoa da Behatokiak organizazio eta erakunde horiekin elkarlanean aritzea.
- (13) Behatokiak, datu pertsonalekin lan egiteko orduan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 45/2001(EE) Erregelamendua, 2000ko abenduaren 18koa, aplikatu behar du. Erregelamendu hori pertsona fisikoak babesteari, eta Erkidegoko institutuek nahiz erakundeek pertsonen datuak tratatzeko erari eta datu horiek askatasunez zirkulatzeari buruzkoa da ⁽¹⁾.
- (14) Behatokiak aplikatu egin behar ditu, baita ere, dokumentuak eskuratzeko eskubidea arautzen duten printzipio orokorrak eta mugak,
- Tratatuaren 255. artikuluan zehazten direnak, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1049/2001(EE) Erregelamenduan definitzen direnak. 1049/2001(EE) Erregelamendua, 2001eko maiatzaren 30ekoak, pertsona orok Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen dokumentuak kontsultatzeko duten aukerari buruzkoa da⁽²⁾.
- (15) Behatokiak nortasun juridiko propioa izango du.
- (16) Behatokiaren garrantzia kontuan hartuta, komenigarria da batzorde exekutibo batek laguntza ematea Behatokiaren administrazio-kontseiluari.
- (17) Droga-kontsumoaren egoerari buruzko informazio ona izan dezan, Europako Parlamentuak eskubidea izan behar du Behatokiari zuzendariari deitu eta azken horrek informazio zuzena eman diezaion.
- (18) Behatokiak gardentasunez egin behar du lan eta, hortaz, berak egindako kudeaketa-lan guztiek indarrean dauden xedapenak bete behar dituzte, bereziki, kudeaketa on bat egiteari eta iruzurraren aurka lan egiteari buruzko xedapenak eta, zehazki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko maiatzaren 25eko 1073/99 (EE) Erregelamendua, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) egiten dituen ikerketei buruzkoa ⁽³⁾ eta Europako Parlamentuaren, Europar Batasuneko Kontseiluaren eta Europako Erkidegoen Batzordearen arteko 1999ko maiatzaren 25eko Erakunde arteko Hitzarmena, hau da, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) egiten dituen barne-ikerketei buruzkoa ⁽⁴⁾; izan ere, Behatokiaren horiei atxikita dago eta beharrezko aplikazio-xedapenak onartu ditu.
- (19) Beharrezkoa da aldiro-aldiro Behatokiak egindako lanen kanpo-ebaluazio bat egitea. Hortik abiatuta, eta beharrezkoa izanez gero, erregelamendu hau egokitu egingo da.
- (20) Estatu kideek ezin dituztenez erregelamendu honen helburuak behar bezala bete eta, beraz, erregelamenduaren garrantzia eta ondorioak kontuan hartuta Erkidego mailan errazago lor daitezkeenez, Erkidegoak neurriak hartzeko aukera izango du, Tratatuaren 5. artikuluan emandako subsidiariotasun-printzipioaren arabera. Aipatutako artikuluko horretan azaltzen den proportzionaltasun-printzipioaren arabera, erregelamendu hau ez doa helburuak lortzeko beharrezkoa denetik harago.

¹ EO L 8, 2001.1.12koa, 1. or.

² EO L 145, 2001.5.31, 43. or.

³ EO L 136, 1999.5.31koa, 1. or.

⁴ EO L 136, 1999.5.31koa, 15. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- (21) Erregelamendu honek errespetatu egiten ditu oinarritzko eskubideak eta, zehazki, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean aitortutako printzipioak betetzen ditu .

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Helburua

1. Erregelamendu honen bitartez, drogen eta toxikomanien Europako Behatokia eratzen da, aurrerantzean «Behatokia» deiturikoa.
2. Behatokiaren helburua da Erkidegoari eta Erkidegoko estatu kideei drogari, toxikomaniari eta bi horien ondorioei buruzko informazio erreala, objektiboa, fidagarria eta konparagarria ematea, betiere 3. artikuluan zehaztutako esparruetan.
3. Behatokiak erabilitako edo eratutako informazio estatistikoaren, dokumentagarriaren nahiz teknikoaren helburua da Erkidegoari eta Erkidegoaren estatu kideei drogari eta toxikomaniari buruzko ikuspuntu bateratu bat ematea, estatu edo herrialdeek, dagozkien eskumenen baitan, neurriak hartu edo jarduerak zehaztu behar dituztenerako. Informazio horren elementu estatistikoa egiteko, agintari estatistiko egokiek elkarlanean arituko da. Behar izanez gero, Erkidegoko Programa Estatistikoa erabiliko da sinergia erraztu eta bikoizketa ekiditeko. Kontuan hartu beharko dira, baita ere, Osasunaren Munduko Erakundeak eta Nazio Batuen Erakundeak (NBE) mundu-mailan dituzten beste datu batzuk.
4. Erregelamendu honetako 2. artikuluko d) idatz-zatiko v) tarteak araututakoa betetzeko bada ere, Behatokiak ezingo du informazioaren edo informazioaren tratamenduaren esparrutik haragoko neurririk hartu.
5. Behatokiak ez ditu datuak bilduko baldin eta, hala, pertsonak edo pertsonen talde txikiak identifikatzen badira. Horrez gain, ez du kasu zehatz eta izendunekin informazio-jarduerarik egingo.

2. artikulua

Eginkizunak

Erregelamendu honetako 1. artikuluan zehaztutako helburua lortzeko, Behatokiak ondorengo eginkizunak izango ditu; betiere, bere eskumenen esparruan:

a) Datuak bildu eta aztertzea

- i) Estatu kideek igortzen dituzten datuak biltzea, erregistratzea eta aztertzea (ikerketatik eratorriak ere bai). Horiez gain, beste iturri

batzuetatik eratorritako datuak ere landuko dira, hau da, erkidegoetako iturrietatik, gobernuz kanpoko nazioetako iturrietatik eta nazioarteko organizazio eskudunen iturrietatik —baita Poliziaren Europako Bulegotik (Europol)— eratorriak ere. Behatokiaren eginbeharra izango da, baita ere, estatu kideetan praktika onei buruzko informazioa ematea eta informazio-trukaketa erraztea. Polikontsumoko joera berriei dagozkien datuak ere bildu, erregistratu eta aztertuko dira, substantzia psikotropiko legalen eta substantzia psikotropiko ilegalen konbinaketak barne.

- ii) Helburua lortzeko adinako ikasketa orokorrak, bideragarriak eta prestatzeko moduak egitea; jarduera pilotuak prestatzea; helburu berarekin, adituen bilerak antolatzea; beharrezkoa izanez gero, adituen lan-talde bereziak eratzea; fondo dokumental eta zientifiko ireki bat sortzea eta eskaintzea; eta informazio-jarduerak sustatzea.
- iii) Antolaketa-sistema bat eta sistema tekniko bat eskaintzea, estatu kideetan dauden programa edo antzeko jarduerari, edo osagarri buruzko informazioa zabaltzeko.
- iv) 5. artikuluan aipatzen den sarea osatzea eta koordinatzea, betiere estatu kideetako agintari eta erakunde eskudunei kontsultatu eta horiekin lan egin ondoren.
- v) Informazio-trukaketa erraztea erabakiak hartu behar dituzten agintarien, ikertzaileen, adituen, eta gobernuko nahiz gobernuz kanpoko erakundeetan drogaren aurkako borrokan interesdun nagusi direnen artean.

b) Informazioa konparatzeko metodoa hobetzea

- i) Europan, informazio konparatua, objektiboa eta fidagarria bermatzea. Horretarako, nahitaezkoak ez diren adierazle eta irizpide komunak zehaztuko dira. Hala ere, nahitaezkoak ez izanda ere, adierazle eta irizpide horiek gainbegiratzea gomenda dezake Behatokiak, hala, estatu kideek eta Batzordeak erabiltzen dituzten metodoekin harmonizazio hobea edukitzeko. Behatokiak, zehazki, tresnak eta metodoak garatuko ditu estatu kideek politika nazionalak hobeto kontrolatu eta ebaluatzeko, eta Batzordearen kasuan, Batasuneko politikak hobeto kontrolatu eta ebaluatzeko.

- ii) Informazio-trukaketa erraztea eta egituratzea, ikuspuntu kualitatibo eta kuantitatibotik (datu-basea).

c) Informazioa zabaltzea

- i) Lortutako informazioaren berri ematea Erkidegoari, estatu kideei eta eskudun organizazioei.

- ii) Estatu kide guztietan eta Erkidegoan bertan egindako lanen berri emango dela bermatzea, eta hala badagokio, baita beste herrialde batzuetan edo nazioarteko erakundeetan egindako lanen berri ere.
 - iii) Isilpekoa ez den informazio fidagarria zabaldu egingo dela bermatzea. Behatokiak jasoko duen datu-baseari dagokionez, Behatokiak txosten bat argitaratuko du urtero. Bertan, drogen eboluzioari eta egoerari buruzko informazioa egongo da, eta baita joera berriei buruzko informazioa ere.
- d) **Lankidetzan aritzea Europako eta nazioarteko erakunde eta organizazioekin, eta beste herrialde batzuekin**
- i) Ekintza nazionalen eta erkidegoko ekintzen arteko koordinazioa hobetzen laguntzea beren jarduera esparruan;
 - ii) Drogari eta toxikomaniei buruz estatu kideetatik jasotzen den informazioaren integrazioa sustatzea. Estatu kideetako informazioaz gain, Erkidegotik eratorritako informazioa ere jasoko da, hau da, zaintzarako eta drogen kontrolerako nazioarteko programetatik eta, batik bat, NBEk aplikatutako programetatik eta haren erakunde espezializatuetatik jasotako informazioa. Hori guztia estatu kideek informazioa banatzeko orduan dituzten betebeharreri kalterik egin gabe eta Nazio Batuen Hitzarmenean jasotakoari atxikita egingo da.
 - iii) Europolekin lankidetzak aktiboa edukitzea, drogak aztertzeke garaietan, ahalik eta eraginkortasun handiena edukitzearren.
 - iv) 20. artikuluan aipatzen diren organizazio eta erakundeekin lankidetzak aktiboa edukitzea.
 - v) Batzordeak hala eskatuta, eta 9. artikuluan aipatutako administrazio-Kontseiluaren onarpena jasota, ezagutza teknikoak beste herrialde batzuei (hautagai herriei edo mendebaldeko Balkanetako herriei esate baterako) igortzea. Baita 5. artikuluan aipatzen den sarearekin egiturazko loturak sortzen eta indartzen laguntzea, eta artikuluan horretan aipatzen diren puntu fokal nazionalak sortzen eta indartzen laguntzea ere.
- e) **Informazioa emateko betebeharrak**
- Printzipio orokor moduan, Behatokiak joera berriei edo eboluzioei buruzko informazioa eman behar die estatu kideetako eskudun instantziei.

3. artikulua

Lehentasunezko arloak

Behatokiaren helburuak eta lanak, 1 eta 2. artikuluetan zehazten den bezala, I. eranskinean azaltzen diren lehentasunen arabera egingo dira.

4. artikulua

Lan-metodoa

1. Behatokiak progresiboki egingo ditu bere betebeharrak, hiru urtero eta urtero egiten diren lan-programen arloan xedatutako helburuei (9. artikuluko 4. eta 5. paragrafoetan zehaztuta) eta dituen baliabideei atxikita.

2. Behatokiak, bere jardunean, kontuan hartuko ditu dagoeneko existitzen diren beste organizazio eta erakunde batzuek egindako jarduerak (batez ere Europol erakundeak) bikoizketarik ez gertatzeko eta jardueroi balio erantsia ematen ahaleginduko da.

5. artikulua

Drogei eta toxikomaniei buruzko Europako informazio-sarea (Reitox)

1. Behatokiak drogei eta toxikomaniei buruzko Europako informazio-sarea (Reitox) izango du lagungarri. Sare hori puntu fokalez osatua dago, bat estatu kide bakoitzean eta beste bat 21. artikuluan araututako hitzarmenak sinatu dituzten herrialdeetan. Sare horretan Batzordearen puntu fokala ere badago.

Puntu fokal nazionalak izendatzea estatu bakoitzaren eskumena da.

2. Puntu fokal nazionalak estatuen eta Behatokiaren arteko interfazea osatuko dute. Puntu fokalen xedea da oinarritzko datuak, adierazleak eta norabidea markatuko duten lerroak sortzen laguntzea eta, hala, Europar Batasunean informazio fidagarria eta konparagarria sortzea.

Nazio mailan dagoen informazioa objektiboki bilduko eta ikertuko da, informazioa drogei eta toxikomaniei buruzkoa, politikei buruzkoa nahiz emandako emaitzei buruzkoa izan. Hainbat zerbitzutako —osasuna, justizia, segurtasun-kidegoak— esperientziak bilduta lortuko da informazio hori, betiere drogak aztertzen dituzten aditu eta organizazio nazionalekin elkarlanean arituz. Bereziki, Behatokiak zehaztutako bost adierazle epidemiologikoei buruzko datuak emango dituzte.

Estatu kide bakoitzak bermatu egin behar du Reitox sarean duen ordezkariak informazio zuzena ematen duela, hau da, 2005/387/JAI Erabakiko 4. artikuluko 1. paragrafoan zehazten dena.

Puntu fokal nazionalak askotariko informazioa eman diezaioke Behatokiari. Esate baterako, sustantzia psicotropikoen erabilera berriei, eta horiekin egiten diren nahasketa berriei buruzko informazioa eman diezaioke, eta baita horiek osasun publikoan sor ditzaketan ondorioei eta horiei aurre egiteko hartu beharreko neurriei buruzko informazioa ere.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Agintari nazionalek bermatu egin behar dute bertako puntu fokala nazio mailako informazioa bildu eta ikertzeko erabiltzen dela, betiere Behatokiarekin batera onartutako norabideak kontuan hartuta.

4. Puntu fokal nazionalen egokitutako lanak Behatokiaren hiru urteko programan azalduko dira, hau da, 9. artikuluko 4. paragrafoan adierazitakoan.

5. Puntu fokal nazionalek lehentasuna badute ere, eta horiekin elkarlanean arituz, Behatokiak drogei eta toxikomaniei buruzko laguntza tekniko eta beste informazio-iturri batzuk erabiltzera jo dezake.

6. artikulua

Datuen babesa eta konfidentzialtasuna

1. Behatokiak aukera izango du drogei eta toxikomaniei buruzko datu guztiak argitaratzeko baldin eta informazioaren hedapenari eta konfidentzialtasunari buruzko arauak errespetatzen baditu, bai bertakoak bai erkidegoarenak. Datu pertsonalak ezin dira argitaratu edo publikoaren eskura jarri.

Estatu kideak eta puntu fokal nazionalak ezin dira behartu beren legeria nazionalen konfidentzialtza jotzen diren datuak ematera.

2. Behatokiari 45/2001 (EE) Erregelamendua aplikatuko zaio.

7. artikulua

Dokumentuetarako sarbidea

1. Behatokiaren eskuetan dauden dokumentuei 1049/2001 (EE) Erregelamendua aplikatuko zaie.

2. Erregelamendu honetako 9. artikuluan aipatutako administrazio-kontseiluak 1049/2001 (EE) Erregelamendua aplikatzeko xedapen praktikoak onartuko ditu.

3. 1049/2001 (EE) Erregelamendua aplikatuz Behatokiak onartutako erabakiek bide eman dezakete Herri Defendatzaileari erreklamazio bat jartzeko edo Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegian errekurtsio bat jartzeko, betiere Tratatuaren 195. eta 230. artikuluetan aurreikusten diren baldintzak kontuan hartuta.

8. artikulua

Gaitasun juridikoa eta kokapena

1. Behatokiak izaera juridiko propioa izango du. Legeriak pertsona juridikoei aitortzen dien gaitasun juridikorik zabalena izango du estatu kide guztietan. Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi eta besterendu ahal izango ditu, eta epaitegietan agertu ahal izango da.

2. Behatokiaren egoitza nagusia Lisboan egongo da.

9. artikulua

Administrazio-kontseilua

1. Behatokiak administrazio-kontseilu bat edukiko du, eta hauek izango dira bertako partaideak: ordezkari bat estatu kide bakoitzeko; Batzordeko bi ordezkari; drogen arloan bi aditu independente, Europako Parlamentuak izendatuak; eta ordezkari bana izango dute hitzarmenak 21. artikuluan arabera izenpetu dituzten estatuek.

Administrazio Kontseiluko kide bakoitzak boto bat izango du. Ez dute boto-eskubiderik izango, ordea, 21. artikuluari jarraiki hitzarmenak egin dituzten herrialdeetako ordezkariak.

Administrazio Kontseiluan erabakiak hartzeko, boto-eskubidea duten partaideen artean bi herenek baino gehiagok erabakiaren alde bozkatu beharko dute. Ez da horrela gertatuko, ordea, artikuluko 6. paragrafoan eta 20. artikuluan aurreikusten diren kasuetan.

Administrazio Kontseiluko kideek laguntzaile edo ordezkari bat izateko aukera izango dute. Titularra falta denean, haren ordezkariak izango du boto-eskubidea.

Administrazio Kontseiluak gonbidatu egin ditzake Behatokiarekin elkarlanean aritzen diren nazioarteko erakundeetako ordezkariak. Ordezkari horiek ez dute boto-eskubiderik izango eta begirale gisa egongo dira, 20. artikuluan zehazten denari jarraiki.

2. Administrazio Kontseiluko kideek beraien arteko bi aukeratuko dituzte lehendakari eta lehendakariorde gisa jarduteko. Agintaldia hiru urterako izango da eta beste behin bakarrik aukeratu ahal izango dira pertsona berak.

Lehendakariak eta lehendakariordeak bozketetan parte hartzeko eskubidea izango dute.

Administrazio-kontseiluak barne-erregelamendua onartuko du.

3. Administrazio-kontseiluaren bileretarako deialdiak lehendakariak egingo ditu. Gutxienez, urtean ohiko bilera bat egingo dute. Behatokiaren zuzendariak, 11. artikuluan aipatzen denak, administrazio-kontseiluaren bileretan parte hartuko du boto-eskubiderik gabe eta, 11. artikuluko 3. paragrafoan adierazten denaren arabera, administrazio-kontseiluko idazkaritza hartuko du bere gain.

4. Administrazio-kontseiluak hiru urteko lan-programa bat garatuko du zuzendariak aurkeztutako proiektu batean oinarrituta. Lan-programa zehaztu aurretik, 13. artikuluan aipatzen den zientzia-komiteari kontsulta egin beharko zaio eta Kontseiluaren irizpena jaso beharko da. Horren ostean, Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari bidaliko zaio.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

5. Hiru urteko lan-programaren barne, administrazio-kontseiluak Behatokiaren urteroko lan-programa onartuko du. Lan-programa horrek zuzendariak proposatutako proiektu batean oinarritu beharko du, eta zientzia-komiteari kontsulta egiteaz gain, Batzordearen irizpena ere jaso beharko du. Lan-programa Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari bidaliko zaie. Lan-programan aldaketak egin daitezke aipatutako prozesuari jarraituz.

6. Batzordea ez badago ados hiru urterako edo urte baterako egindako lan-programekin, administrazio-kontseiluak onartuko ditu programak, baldin eta boto-eskubidea duten kideen artean hiru laurdenek hala erabakitzen badute.

7. Administrazio-kontseiluak onartu egin behar du Behatokiak jardueren inguruan egindako urteko txostena. Horren ostean, txostena bidaliko die Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Batzordeari, Kontuen Auzitegiari eta estatu kideei, gehienez ere, ekainaren 15erako.

8. Behatokiak, urtero, ebaluazio-prozesuek emandako emaitzei buruzko informazioa bidaliko du aurrekontu-agintaritzara.

10. artikulua

Batzorde exekutiboa

1. Administrazio-kontseiluari batzorde exekutibo batek lagunduko dio. Batzorde exekutiboa honakoek osatuko dute: administrazio-kontseiluko lehendakariak eta lehendakariordeak, administrazio-kontseiluko bi kidek (estatu kideen ordezkari gisa eta administrazio-kontseiluak hautatuak) eta Batzordeko bi kidek. Zuzendariak Batzorde exekutiboaren bileretan parte hartuko du.

2. Batzorde exekutiboa, gutxienez, urtean bitan bilduko da, eta beharrezko denean administrazio-kontseiluaren erabakiak prestatzeko eta zuzendariari lagundu eta aholkuak emateko. Administrazio-kontseiluaren izenean erabakiak hartuko ditu, baldin eta erabaki horiek 15. artikuluko 10. paragrafoan aurreikusitako finantza-araudian aurreikusita badaude eta, erregelamendu honen bitartez, administrazio-kontseiluarentzat gordetakoak ez badira. Erabakiak adostasunez hartuko ditu.

11. artikulua

Zuzendaria

1. Behatokiak zuzendari bat izango du. Zuzendaria administrazio-kontseiluak aukeratuko du, bort urterako, Batzordeak proposatuta. Pertsona bera berriz aukeratzeko aukera izango da.

2. Gehienez ere, bi agintaldi egin ahal izango dira, eta lehen agintaldirako izendatu aurretik, administrazio-kontseiluak gonbita egingo dio aukeratutako hautagaiari Europako Parlamentura joan eta, bertan, adierazpen bat egiteko eta Parlamentuko kideen galderei erantzuteko.

3. Zuzendariak ardura hauek izango ditu:

- a) administrazio-kontseiluak onartutako programak eta erabakiak prestatzea eta aplikatzea,
- b) administrazio arrunta,
- c) behatokiaren lan-programak prestatzea,
- d) irabaziak eta gastuak aurreikusiko dituen egoeraren proiektua prestatzea eta Behatokiaren aurrekontua gauzatzea,
- e) erregelamendu honetan aurreikusten diren txostenak prestatzea eta argitaratzea,
- f) langileekin zerikusia duten gai guztien kudeaketa egitea, eta, bereziki, langileak izendatzen dituen agintaritzari egotzitako lanak,
- g) Behatokiaren antolaketa-egitura definitzea eta administrazio-kontseiluari aurkeztea honek bere onarpena eman ahal izateko,
- h) Erregelamendu honetako 1. eta 2. artikuluetan aurreikusten diren funtzioak eta lanak egitea,
- i) Behatokiak gauzatzen dituen lanak aldi behin ebaluatzea,

4. Zuzendariak egindako kudeaketen berri emango dio administrazio-kontseiluari.

5. Zuzendaria izango da Behatokiaren ordezkari legala.

12. artikulua

Zuzendariaren eta administrazio-kontseiluko lehendakariaren agerraldia Europako Parlamentuan

Zuzendariak Behatokiak burututako jardueri buruzko txosten orokor bat aurkeztuko dio urtero Europako Parlamentuari. Europako Parlamentuak agerraldia egiteko eska diezaieke zuzendariari eta administrazio-kontseiluko lehendakariari, Behatokiak egindako jardueri buruz aritzeko.

13. artikulua

Zientzia-komitea

1. Administrazio Kontseiluari eta zuzendariari zientzia komite batek lagunduko die. Komite horrek irizpen bat bidaliko du erregelamendu honek aurreikusten dituen kasuetan, hau da, administrazio-kontseiluak edo zuzendariak Behatokiari zientziarekin zerikusia duen zereginen bat ematen dionean.

Zientzia Komitearen irizpenak argitaratu egingo dira.

2. Zientzia-komitea, gehienez ere, hamabost adituk

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

osatuko dute. Bertako kideak administrazio-kontseiluak hautatuko ditu gaitasun zientifikoaren eta independentziaren arabera, eta *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* interes-adierazpeneko deialdia argitaratu ondoren. Hautaketa-prozesua egiteko garaian, helburua da zientzia-komitea osatzen duten kideek gaitasun zientifiko nahikoak edukitzea, batez ere, drogari eta toxikomaniei lotuta dauden arazo garrantzitsuenen inguruan.

Zientzia-komiteko kideak norberaren izenean izendatuko dira eta independentzia osoarekin igorriko dituzte irizpenak, dagozkien estatu kideei eta erkidegoko erakundeek atxiki gabe.

Irizpena igorri aurretik, eta ahal izanez gero, zientzia-komiteak kontuan hartuko ditu aditu nazionalak igorritako irizpenetan jasotzen diren datuak.

2005/387/JAI Erabakiaren aplikazioari begira, Zientzia-komitea handitzea posible izango da erabaki horren 6. artikuluko 2. paragrafoan zehazten den prozesuaren arabera.

3. Zientzia-komiteko kideek hiru urteko agintaldia izango dute. Berriztatzeko aukera egongo da.

4. Zientzia-komiteak hiru urterako hautatuko du bere lehendakaria. Lehendakariak berak, gutxienez, urtean behin egingo du deialdia.

14. artikulua

Aurrekontua egiteko prozesua

1. Behatokiaren irabazi eta gastu guztiak aurreikusi egingo dira aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako, zeinak bat egingo duen urte zibilarekin. Irabazi eta gastu horiek Behatokiaren aurrekontuan esleituko dira.

2. Behatokiaren aurrekontua orekatua izango da sarrerei eta gastuei dagokienez.

3. Beste baliabide batzuk egon badaitezke ere, Behatokiaren sarreren artean honakoak egongo dira: Europar Batasuneko aurrekontu orokorrari dagokion Erkidegoaren ("Batzordea" atala) diru-laguntza bat, burututako zerbitzuen truke egindako ordainketak, eta 20. eta 21. artikuluetan aipatutako organizazio nahiz erakundeek eta beste herrialde batzuek emandako laguntza ekonomikoak.

4. Behatokiaren gastuen artean, honakoak egongo dira:

a) langileei egindako ordainketak, administrazio- eta azpiegitura-gastuak, eta funtzionamendu-gastuak.

b) Reitox sareko puntu fokalei laguntzeko gastuak.

5. Administrazio-kontseiluak, zuzendariak egindako proiektu batean oinarrituta, Behatokiaren irabazi eta gastuen aurreikuspenen egoera egingo du urtero, hurrengo jarduerarako. Administrazio-kontseiluak aurreikuspenen egoera hori Batzordeari bidaliko dio, gehienez ere, martxoaren 31rako. Bertan,

Behatokiako aurreikusita dauden langileen zerrenda eta lan-programaren proiektua egongo dira. Batzordeak bidali egingo du aurreikuspenen egoera hori, bai Europako Parlamentura bai Kontseilura (hemendik aurrera "Aurrekontu Agintaritzak" deituko diegu). Horiez gain, Europar Batasuneko aurrekontuaren aurreproiektua ere bidaliko zaie.

6. Aurreikuspenen egoera horretan oinarrituta, Batzordeak Europar Batasuneko aurrekontu orokorraren aurreproiektuan sartu beharko ditu Behatokiari emango zaizkion kopuruak. Kopuru horietan sartuko dira langileei ordaindu beharrekoak eta diru-laguntzaren zenbatekoa. Kopuruak aurrekontu orokorraren kontura egingo dira. Guzti hori Aurrekontu Agintaritzara bidali beharko du Tratatuaren 272. artikulua arabera.

7. Aurrekontu Agintaritzak beharrezko kredituak baimenduko ditu Behatokiari diru-laguntza emateko. Behatokiak langileen zerrenda ere zehaztuko du.

8. Aurrekontua behin betiko bilakatuko da administrazio-kontseiluak aurrekontua onartu eta Europar Batasuneko aurrekontu orokorretan behin betiko onarpena eman ondoren. Beharrezkoa izanez gero, zuzenketak egingo dira.

9. Administrazio-kontseiluak proiektuaren bat egitea erabakitzen badu, eta horrek aurrekontuko finantzaketan ondorio nabariak baditu (bereziki, higiezinekin zerikusia badu, esate baterako, eraikinak alokatzea edo erostea), lehenbailehen jakinaraziko dio Aurrekontu Agintaritzari. Batzordeari ere jakinarazi behar dio.

Aurrekontu Agintaritzako adarretako batek irizpena igortzeko asmoa duela jakinarazten duenean, irizpen hori administrazio-kontseiluari bidali behar dio proiektua jakinarazi eta sei asteko epean.

15. artikulua

Aurrekontua betetzea

1. Zuzendariak beteko du Behatokiaren aurrekontua.

2. Behatokiak kontulariak behin-behineko kontuak eta aurrekontuaren eta finantzaketaren kudeaketa-txostenak bidali behar dizkio Batzordeko kontulariari, gehienez ere, ekitaldia itxi eta hurrengo martxoaren 1a baino lehen. Batzordeko kontulariak institutu eta erakunde ez zentralizatuen kontuak finkatuko ditu, Europako Erkidegoen aurrekontu orokorrari aplikatzen zaion finantza-erregelamendua onartzen duen Kontseiluaren 2002ko ekainaren 25eko 1605/02 (EE, Euratom) Erregelamendua arabera⁽¹⁾. Aurrerantzean "finantza-erregelamendu orokorra" deituko diegu.

3. Batzordearen kontulariak Behatokiaren behin-behineko kontuak eta aurrekontuaren eta finantzaketaren kudeaketa-txostena igorriko ditu

¹ EO L 248, 2002.9.16koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Kontuen Auzitegira, gehienez ere, ekitaldia itxi eta hurrengo martxoaren 31 baino lehen. Europako Parlamentuari eta Kontseiluari ere bidali beharko dizkie jarduerari dagokion aurrekontuaren eta finantzaketaren kudeaketa-txostena.

4. Kontuen Auzitegiak Behatokiaren behin-behineko kontuen inguruan egindako oharra jaso ondoren, finantza-erregelamendu orokorraren 129. artikulua arabera, zuzendariak Behatokiaren behin betiko kontuak egingo ditu bere ardurapean eta, ondoren, administrazio-kontseiluari bidaliko dizkio bere irizpena emateko.

5. Administrazio-kontseiluak irizpen bat igorriko du Behatokiaren behin betiko kontuen inguruan.

6. Institutuko zuzendariak behin betiko kontu horiek eta administrazio-kontseiluaren irizpena Europako Parlamentura, Kontseilura, Batzordera eta Kontuen Auzitegira bidaliko ditu, gehienez ere, ekitaldia itxi eta hurrengo uztailaren 1erako.

Behin betiko kontuak argitaratu egingo dira.

7. Zuzendariak Kontuen Auzitegira bidaliko ditu, irailaren 30erako, Auzitegiak berak egindako oharren erantzuna. Administrazio-kontseiluari ere bidaliko dio erantzuna.

8. Europako Parlamentuak eskatuta, zuzendariak beharrezko informazio guztia bidaliko dio Europako Parlamentuari, hala, dagokion ekitaldiko aurrekontua onartzeko prozesua behar bezala garatzeko, finantza-erregelamendu orokorraren 146. artikuluko 3. paragrafoari jarraiki.

9. Kontseiluak gehiengo kualifikatuz aholkatu ondoren, Europako Parlamentuak, N + 2 urteko apirilaren 30a baino lehen, zuzendariak N ekitaldiko aurrekontua gauzatzeko egindako kudeaketa onartuko du.

10. Batzordeari kontsultatu ondoren, administrazio-kontseiluak onartu egingo du Behatokiari aplikatu beharreko finantza-araudia. Araudi hori bakarrik desbideratu daiteke Batzordearen 2343/2002 (EE, Euratom) Erregelamendutik ⁽¹⁾ baldin eta Behatokiaren funtzionamendurako eskakizun zehatzek hala eskatzen badute eta Batzordearen baimena edukiz gero. 2343/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduaren bitartez erakundeen marko finantzarioa onartzen da, 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduko 185. artikuluan zehazten dena.

16. artikulua

Iruzurraren aurkako borroka

1. Erkidegoen interes finantzarioak kaltetzen dituzten iruzurra, ustelkeria eta legez kanpoko bestelako jarduerari aurka egiteko, 1073/1999 (EE) Erregelamenduaren xedapenak aplikatuko dira.

¹ EO L 357, 2002.12.31koa, 72. or.

2. Finantza-erabakiek eta dagozkien aplikazio-tresnek berariaz xedatuko dute kontuen auzitegiak eta OLAFek, behar izanez gero, *in situ* kontrolak egin ditzaketela Behatokiaren kredituak jasotzen dituzten onuradunen instalazioetan.

17. artikulua

Pribilegioak eta immunitateak

Europako Erkidegoetako Pribilegio eta Immunitateen gaineko Protokoloa ezarriko zaio Behatokiari.

18. artikulua

Langileen erregimen juridikoa

Behatokiako langileei aplikagarriak zaizkie Europako Erkidegoetako funtzionarioen Estatutua eta Erkidego horietako gainerako langileei aplikatzeko Erregimena. Aplikagarriak zaizkie, baita ere, estatutu hori eta erregimen hori aplikatzeko Erkidegoetako erakundeek taldean onartutako arauak.

21. artikuluan aipatutako akordioak sinatu dituzten herrialdeetako langileak kontratatuzko, Behatokiak nahikoa izango du artikuluko honetako aurreko paragrafoan aipatzen diren estatutuarekin eta erregimenarekin.

Langileei dagokienez, Behatokiak izendapenak egiteko ahaldundutako agintaritzaren funtzioak beteko ditu.

Administrazio-kontseiluak, Batzordearekin batera, beharrezko aplikazio-xedapenak ezarriko ditu. Era berean, errespetatu egin beharko ditu lehenengo lerrokan aipatutako Funtzionarioen Estatutuko 110. artikuluan eta Erregimenean aipatzen diren xedapenak.

Administrazio-kontseiluak beharrezko xedapenak onartu ahal izango ditu Behatokian beste estatu kideetako adituak kontratatu ahal izateko.

19. artikulua

Erantzukizuna

1. Kasuan kasuko kontratuari aplikatu behar zaion Zuzenbideak arautuko du Behatokiaren kontratu-erantzukizuna. Justizia Auzitegiak ahalmena izango du Behatokiak egindako kontratu batetako arbitraje-klausula baten arabera epaitzeko.

2. Kontratuz kanpoko erantzukizunari dagokionez, eginkizunak burutzean sortutako kalteak konpondu egin beharko ditu Behatokiak, bertakoek nahiz agenteek sortutako kalteak izan. Horretarako, estatu kideetako zuzenbideen artean dauden printzipio orokor komunak jarraituko dira. Justizia Auzitegiak erabakiko ditu kalteen ordainketari buruz sor daitezkeen auziak.

3. Agenteek Behatokiarekiko duten erantzukizun pertsonala zehazteko, Behatokiako langileei aplikatzen

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

zaizkien xedapenak hartuko dira kontuan.

20. artikulua

Elkarlana beste organizazio eta erakunde batzuekin

Tratatuaren 302. artikulua arabera Batzordeak eduki ditzakeen harremani kalterik egin gabe, Behatokiak ahaleginak egingo ditu lankidetzan jarduteko drogen arloko eskumenak dituzten nazioarteko organizazioekin eta gobernuko zein gobernuz kanpoko beste erakundeekin, bereziki Europakoekin.

Lankidetzaren horrek lan-akordioetan oinarritu behar du, lehen aipatutako agintari eta organizazioekin egindako lan-akordioetan. Administrazio-kontseiluak onartu beharko ditu, betiere zuzendariak aurkeztutako proiektu batean oinarrituta eta Batzordeak irizpen bat eman ondoren. Batzordea ez badago ados akordio horiekin, administrazio-kontseiluak onartuko ditu boto-eskubidea duten kideen artean, gutxienez, hiru laurdenek hala erabakitzen badute.

21. artikulua

Hirugarren herrialdeen parte hartzea

Behatokiak onartu egingo du beste herrialde batzuen parte hartzea, baldin eta, Behatokiaren xede eta lanei dagokienez, Erkidegoaren eta estatu kideen interes berak partekatzen badituzte. Horretarako, bete egin beharko dira herrialde horien eta Batzordearen artean (Tratatuaren 300. artikulua oinarritzat hartuta) adostutako akordioak.

22. artikulua

Justizia Auzitegiaren eskumena

Justizia Auzitegiak eskumena izango du Behatokiaren aurka aurkeztutako errekursoak ebazteko, Tratatuaren 230. artikuluan azaltzen diren baldintzen arabera.

23. artikulua

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak eta estatu kide guztietan zuzenean aplikatzekoak izango dira.

Estrasburgon eginga, 2006ko abenduaren 12an.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea
J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean
Presidentea
M. PEKKARINEN

Ebaluazio-txostena

Batzordeak Behatokiaren kanpo-ebaluazio bat egingo du sei urtero, Behatokiaren hiru urteko lan-programak burutzearekin batera. Ebaluazioan Reitox sistema ere erabili beharko da. Batzordeak ebaluazio-txostena Europako Parlamentura, Kontseilura eta administrazio-kontseilura bidaliko du.

Testuinguru horretan, Batzordeak, egoki iritziz gero, erregelamendu honen xedapenak aldatzeko proposamena aurkeztuko du, erakunde arautzailei dagokienez izandako bilakaeraren argitan eta, betiere, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

24. artikulua

Indargabetzea

302/93 (EE) Erregelamendua indargabetzen da.

Indargabetuta dagoen Erregelamenduari egiten zaizkion aipamenak Erregelamendu honi egindakotzat joko dira. Aipamen horiek III. eranskinean dagoen korrespondentzia-taularen arabera interpretatuko dira.

25. artikulua

Indarrean sartzea

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu eta hogeitau egunera sartuko da indarrean erregelamendu hau.